



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 31

125. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00106. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita immigrazio ilegalarentzako ate irekien politika errefusa dezan. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00134. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Immigrazioaren eta Asiloaren Europako Paktua. Javier Arza Porras jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-24/MOC-00137. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita “Ikasleen bajak” deiturikoak sortzeko arauak eman ditzan. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- 11-24/MOC-00139. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita tasa finkoko hipoteka eskuragarri bat arautu dezan. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-24/MOC-00141. Mozioa, talde parlamentarioek konpromisoa har dezaten arrazakeriaren aurkako eta giza eskubideetan oinarritutako politika publiko bat aldezteko. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00349. Galdera, SAE sindikatuak C eta D mailetako lanbide karreraren inguruan dituen eskakizunei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00350. Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean Nafarroan EITB hartzeko sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00438. Galdera, 2023ko diruzaintza-gerakinaren xedeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00439. Galdera, Mendebaldeko Pirinioan bi hartz eme berri sartzea dela-eta Nafarroako Gobernuak 2018an proposatutako neurriei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00440. Galdera, bizi-euskarri aurreratuko anbulantzieta mediku eta erizainek arriskugarritasun-osagarria ez jasotzeko arrazoiei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (15. or.).

- 11-24/PES-00441. Galdera, Osasun Departamentuak urriaren 18an Cintruenigo eta Fitero arratsaldeko eta gaueko guardiako medikurik gabe uzteko arrazoiei buruzkoa. Irene Royo Ortin andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00442. Galdera, SCRAPei baimena emateari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00443. Galdera, gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua jasotzen denetik eginiko urratsei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00444. Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora bideratutako pazienteei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00445. Galdera, Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileekiko hitzarmenei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (19. or.).
- 11-24/PES-00446. Galdera, gripearen aurkako txertoen stock faltari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (20. or.).
- 11-24/PES-00447. Galdera, Lantzeko meategiko ikerketa-aurreikuspenei buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (20. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/ACOP-00002. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, Kolpe militarren, gerraren eta diktaduraren biktima guztiak oroitu eta omentzeko Eguna dela-eta (22. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00106. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita immigrazio ilegalarentzako ate irekien politika errefusa dezan

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

2024ko urriaren 28an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Eledunen Batzarrak, 2024ko urriaren 28ko Erabakiaren bidez, onetsi egin du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko Emilio Jiménez Román jaunak Mahaiaren urriaren 10eko Erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtsioa. Mahaiaren Erabaki horren bidez, ezetsi egin zen Nafarroako Gobernua immigrazio ilegalarentzako ate irekien politika errefusa dezan premiatzen duen mozioa berriz aztertzeko eskaria. Eledunen Batzarren Erabakia ikusita, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita immigrazio ilegalarentzako ate irekien politika errefusa dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Espainia, Europako gainerako herrialdeak bezala, aurrekaririk gabeko immigrazio-inbasioa jasaten ari da, etorkizuna arrisku larrian jartzen ari dena, espainiar guztien elkarbizitzarako, segurtasunerako eta oparotasunerako ondorio kaltegarriekin. Bruselako eliteek bultzatzen dute immigrazio-inbasio hori; izan ere, jaiotza-tasa sustatzearen eta familia nahiz langileei laguntzearen aldeko apustua egin beharrean, erabaki dute kontrolik gabeko immigrazio eredu bat ezartzea, zeinak milioika etorkin ilegal etortzea bultzatzen baitu eta gizarte multikultural baten eredu disolbatzailea ezartzen saiatzen baita.

Espainian, egoerak muga posible oro gainditu du. Etorkin ilegalen etorrera masiboak ez du etenik izan azken urteotan. Izan ere, Barne Ministerioak immigrazio ilegalari buruz hamabostean behin egiten duen azken txostenak dioenez, aurtun abuztuaren 31ra arte, 35.456 etorkin ilegal sartu dira Espainian; hau da, 2023ko aldi berean baino % 62,8 gehiago (13.676 etorkin gehiago)¹.

Immigrazio ilegala babestu eta bultzatzean arduragabekeriak jokatzeak zuzeneko ondorioak ditu beren auzoetan kulturantzaren "onurak" pairatzen ari diren espainiar arrunten bizitzan: sastakatzeak, aihozkadak eta indarkeriazko eraso eta sexu-eraso gehiago. Alegia, segurtasunik eza handiagoa. Hori guztia immigrazio masiboak egonkortasun ekonomikoa, zerbitzu publikoen finantzaketa eta espainiarren gizarte-eskubideak arriskuan jartzen dituela ahaztu gabe.

Voxek bakarrik ohartarazi du immigrazio-eredu hori zentzugabea dela, alderdi politikoaren, diruz lagundutako komunikabideen eta elkartearen irainak eta demagogia gorabehera; izan ere, immigrazioak berez dakarren dramaren konplizeak ez direnean (ikus itsasoko heriotzen zifra dramatikoak), beste aldera begiratzen dute, eta uko egiten diote beren erabakien errealitateari eta ondorioei aurre egiteari. Horregatik, Voxek uko egin dio

Espainiako auzoetara segurtasunik eza ekartzea dakarren erabaki ororen konplize izateari.

Espainiarrek auzo seguruak nahi dituzte, non seme-alabek kalean jolastu ahal izanen baitute; neskatoek eta nerabeek, jolastu edo paseatu, edo, besterik gabe, jazarpenik edo erasorik jasateko beldurrik gabe egon.

Amaitu egin beharra dago milaka pertsona bizitza arriskuan jartzera –eta gehiegitan tragikoki galtzera– eraman dituzten dei-efektuko politikekin, Europan etorkizun hobe baten promesa faltsuen ondoriozkoak, gobernu kanpoko erakundeen eta pertsonen salerosketako mafien konplizitatea dutenak.

Argi eta garbi adierazi behar da legez kanpo iristen diren etorkinek ezin izanen dutela inoiz beren egoera erregularizatu Espainian.

Bruselako burokratak gehiago kezkatzen dira etorkin ilegalez espainiarren ongizateaz eta segurtasunaz baino; beraz, bidezkoa da Nafarroan dauden etorkinei Bruselara lekualdatzeko aukera eskaintzea.

Horregatik guztiagatik, Vox Nafarroa elkarteak honako hau eskatzen du:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Gobernuaren premiatzen dugu:

1. Immigrazio ilegalari ateak zabaltzeko politika errefusa dezan.

2. Nazioko Gobernuari exiji diezaion berehala kanpora ditzan gure erregioan dauden etorkin ilegal guztiak.

3. Gure erregioan etorkin ilegalei harrera egiteko edozein zentro-mota irekitzea errefusa dezan, eta Martzillako behaketa eta harrera zentroa itxi dezan.

4. Gizakien trafikoaren eta immigrazio ilegala- ren mafiekin elkarlanean aritzen diren elkarte eta GK Erik babesten ez duen erregio deklaratu dezan Nafarroa.

5. Jasotako laguntza publikoen zenbatekoa eta etorkin ilegalen harrera eta integrazioa finantzatzen duten aurrekontu-partida autonomikoak bidera ditzan etorkin ilegalak beren jatorrizko herrialdeetara edo, kasua bada, eta hala nahi dutenak, Belgikako Bruselako hirira eramateko, han baitaude horien etorrera bultzatzen eta sustatzen duten elite europarrak.

6. Herritarren segurtasuna indartzeari buruzko herri-kontsulta bat egitea bultzatu eta sustatu dezan, hala erregio nola herri mailakoa, gure erregioan dauden etorkin ilegal guztiak kanporatzea planteatuko duena.

7. Etorkin ilegalei gizarte-onurak eta -laguntzak eskuratzeko aukera ematen dien errolatze-iruzurra saihesteko beharrezkoak diren lege-aldaketak sustatu ditzan.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

¹ Sarbidea: https://www.interior.gob.es/opencms/export/sites/default/galleries/galeria-de-prensa/documentos-y-multimedia/balances-e-informes/2024/16/informe_quincenal_acumulado_01-01_al_31-08-2024.pdf

11-24/MOC-00134. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Immigrazioaren eta Asiloaren Europako Paktua

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Immigrazioaren eta Asiloaren Europako Paktua.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Javier Arza Porrás, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Ursula Von der Leyen Europako Batzordeko presidentea nahi du Europar Batasunaren migrazio-politikan; izan ere, migratzaileen kanporatzeak bizkortu nahi du, EBtik kanpo, beste herrialdeetan, deportazio zentroak abian jarrita. Hala ere, Batzordeak berak argitu duenez, zentro horiek ezartzeko EBko arauak aldatu beharko lirarteke.

Von der Leyenen proposamenak Giorgia Meloni markatutako ildoari jarraitzen dio. Zentro horiek martxan jarri ditu Italiak Albanian. Baina Anitta Hipper Barne eta Migrazio bozeramaileak azaldu duenez, EBra iristen diren migratzaileak bota ahal izateko, jatorrizko herrialdera behin betiko kanporatuko dituen ebazpena heltzen den bitartean, "aurretik migratzaileak jatorriz berea ez den herrialde balera nahitaez itzuli ahal izatea arautu beharko litzateke".

Von der Leyenek hamar puntuko zerrenda batean planteatu du proposamena, aste honetan EBko 27 estatuburu eta gobernuburuak egin behar duten bileraren aurretik. "Barne Gaietarako eta Migrazio-rako Komisarioari eskatu diot zuzendu dezala legez

kanpoko migrazioari aurre egiteko konponbideei buruzko gogoeta eta estatukideen proposamenak kudeatu ditzala. EBren printzipioak oinarri hartuta eta nazioarteko zuzenbidea errespetatuta, migratzaileentzat bidezkoak eta jasangarriak izango diren konponbideak bermatu behar dira", idatzi du gutunean.

Italia alde balera utzita, presidente "popularraren" proposamena ez da berria. Europako beste gobernu batzuek migrazio-politikak gogortzeko eskatu diote EBri, kanpoko muga gehiago kontrolatzeko eta kanporatzeak bizkortzeko helburuarekin. 14 estatuk, tartean Alemaniak eta Frantziak, "irtentze berritzaileak" aztertzeko eskatu zioten Viktor Orbanen txandakako presidenteari gutun batean, deportazioak "azkartzeko".

Pasa den apirilean Eurodiputatuak Asilo eta Migrazio Itunaren alde bozkatu zuten. Hitzarmenak, praktikan, gogortu egingo lituzke EBn sartzeko baldintzak.

Europako Migrazio eta Asilo Itunak pertsona migratzaileen aurkako praktikak legeztatu dituela salatu dute Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Amnistía Internacional, besteak beste. Migrazio eta Asilo Ituna Giza Eskubideen eta Europaren balizen «aurkakoa» dela salatu dute kolektiboek, eta eskuin muturraren agendak markatu duela.

Azaldu dutenez, dagoeneko ematen diren hainbat praktika «legeztatu eta zabaltzea» ekarri du ituna onartzeak. Horien artean honako hauek aipatu dituzte:

- Estatu kide bakoitzak «Hirugarren Herrialde Seguruak» zerrenda egingo du, eta horrek esan nahi du nazionalitate horiek dituzten pertsonak ezin izango dutela asilorik eskatu Batasuneko estatuak.

- Berehalako kanporatzeak eta deportazioak legeztatuko dira eta Frontexek erabateko askatasuna izango du.

- Dublingo Itunaren epea luzatuko da, eta, beraz, oraindik egoera erregularizatu gabe duten pertsonen egoera are larriagoa izango da.

- 6 urtetik aurrerako umeak ahalik dituzte deportatu eta aurpegi eta hatz-marken azterketak egin.

- Gogorarazi dute, gainera, Europako herrietara iristea lortzen duten pertsona migratuek des-

berdinkeria jasan behar dutela, eta forma askotako arrazakeria.

Erabaki-proposamena:

1. Legebiltzarrak Migrazioaren eta Asiloaren Europako Ituna errefusatzen du, biztanleria migratzailearen eta errefuxiatuaren giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia urratzeagatik.

2. Legebiltzarrak errefusatzen du estatu kideak biztanleria migratzailea atxikitzeko hirugarren

herrialdeetan azpiegiturak eraikitzen animatzeko Ursula Von Der Leyen Europako Batzordeko presidentea bidalitako gutuna.

3. Legebiltzarrak konpromisoa berresten du Europako erakundeak egiten ari diren politika arrazista eta xenofoboaren aurrean, migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideak defendatzeko.

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

11-24/MOC-00137. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premia-tzen baita “Ikasleen bajak” deiturikoak sortzeko arauak eman ditzan

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premia-tzen baita “Ikasleen bajak” deiturikoak sortzeko arauak eman ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Osasun mentalekin lotutako arazoak dauzkaten nerabe espainiarren portzentajea Europako

batez bestekoa baino lau puntu handiagoa da (% 16,3), eta batez besteko globala baino zazpi puntu handiagoa (% 13,2). Badakigu, baita ere, 18 urte izan baino lehen hasten direla nahasmendu mentalen % 50, eta 15 urte izan baino lehen, berriz, adostasunik ez emozionala edo portaerazkoa.

13tik 18 urtera bitarteko gazteen % 41,1ek dio izan duela edo uste du izan duela osasun mentaleko arazo bat azken urtean, Unicefek osasun mentalari buruz astearte honetan argitaratutako txosten baten arabera, "Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Iritzi Barometroa 2023-2024". Talde horren barruan, erdia baino gehiagok (% 51,4) ez du laguntzarik eskatu, eta heren batek ez du inorekin hitz egin arazo horiei buruz. Datu horiek guztiak daude errealitate gordin-gordin baten atzean: suizidioa da, gaur-gaurkoz, 12tik 29 urtera bitarteko nerabe eta gazteen heriotzaren lehenbiko kausa.

Gure erkidegoan, Nafarroako Gazteriari buruzko 2022ko Inkestak zioenez (inkesta Nafarroako Gazteriaren Institutuak egin zuen), gazte nafarren % 15,9k dio, laguntza psikologikoari eta/edo psikiatrikoari dagokionez, laguntza espezializatua jaso duela azken urtean, bere osasun mentalekin lotutako beharrianak direla-eta.

Estatuko barometroaren arabera, nerabeen % 40,5ek uste du txikia edo oso txikia dela euren ikastetxeko orientatzaileek edo tutoreek osasun mentalekin lotutako auzietan haiei laguntzeko probabilitatea. Arrazoi nagusia da gazteak ez direla profesional horiekin fidatzen (% 56,4) eta ez daudela seguru sekretua gordeko ote dieten (% 49,3).

Orobat uste dute ez daukatela prestakuntza egokia edo ez daukatela haiei eskaintzeko astirik.

Txostenaren egileek diote beharrezkoa dela ongizatea eta ikaskuntza emozionala sustatzeko programak sartzea eta indartzea ikastetxeetan, eta beharrezkoa dela, orobat, osasun mentaleko arazoan prebentzio eta detekzio goiztiarreko jarduketak sustatzea eta osasun- nahiz gizarte-erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.

Garbi dago, hortaz, gazte ikasleek gaixotasunei dagokienez –eta areago, gaixotasun mentalei dagokienez– bizi duten egoera kezagarria izatera iristen ari dela lan-munduan mediku-baja justifikatuz denaz bezainbatean.

Ikasleen artean, berriz, ez da halakorik gertatzen. Gazte batek, ikasle batek, iraupen luzeko mediku-baja izan dezake, urte osoan eragotziko diona ikastaro batera joatea (hala unibertsitatekoa nola unibertsitatekoa ez dena), hori lan-ingurune batean gertatuko balitz izanen lituzkeen bermerik eta eskubiderik gabe. Absentzia horrek aitortuko ez zaizkion zenbait kalte ekarriko dizkio; adibidez, beka galtzea hurrengo urtean ikasturtea bete ez duelako, edo eskolarekin zehazki lotutako bestelako ondorio batzuk. Horrez gain, eskola-porrota azpiko osasun mentaleko baldintzekin loturik egon daiteke; esate baterako, antsietateko nahasmenekin, depresioarekin edo arreta-defizitarekin. Behar den laguntza emateko, funtsezkoa da arazo horiek identifikatzea eta horiei heltzea.

Save the Children erakundeak ere ikuskera bera dauka, esaten baitu "familiek bizi duten laneko ziurgabetasunak, langabeziak eta estres ekonomikoak eragina daukatela neska-mutikoen eskola-arrakastan eta osasun mentalean. Depresioa eta eskola-porrota izateko arriskua handiagoa da pilaketa-egoerak gertatzen direnean edo etxebizitzak baldintza egokirik ez daukanean".

Horrek, halaber, estresa eta antsietatea eta, oro har, haien osasunaren narriadura eragin

dezake, bai eta haien garapen sanitarioaren okertzea ere. 2022an, Unibertsitateetako Ministerioaren eta Osasun Ministerioaren azterlan batean parte hartu zuten ikasleen kezka nagusietako bat ziren oztopo ekonomikoak eta beka bat lortzeko edo galtzeko presioa. Kontuan hartu behar da ikasleen bi herenek jasotzen dutela euren ikasketak finantzatzeko laguntza familiarra, eta heren batek baino gehiagok daukela beka bat.

2023ko txosten baten arabera, Mutua Navarra-ko 5.000 enpresetako datuekin egina, 20tik 29 urtera bitarteko eta 30etik 39 urtera bitarteko enplegatuen artean handiagoa da patologia mentalagatiko bajearen intzidentzia: 30 kasu, mila langile bakoitzeko (40tik 49 urte bitartekoen artean, 27; 50etik 59 urtera bitartekoen artean, 21, eta 60tik 65 urtera bitartekoetan, 13). Lan-esparruko datu horiek erakusten digute (ikasleen esparrura estrapolatzen ahal dira lasai asko) beharrezkoa dela gazteenen osasun mentala zaintzeko eta babesteko neurrietan sakontzea.

Hortaz, esan daiteke zorretan gaudela ikasleen osasun mentalari dagokionez eta aurrera egin beharra dagoela gaixotasun kasuetan eskubideak bermatzeari dagokionez –bereziki, osasun mentalaren kasuan–, lan-munduan jada gertatzen den moduan.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari premiatzen du legea egin dezan, "ikasleen bajak" deitutakoak sortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua premiatzen ditu nork bere eskumenen esparruan neurriak har ditzan arestian aipatutako arazoei aurre egiteko, eta ikasleen eskubideak berma ditzaten.

Iruñean, 2024ko urriaren 23an

Eleduna: Carlos Guzmán Pérez

11-24/MOC-00139. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita tasa finkoko hipoteka eskuragarri bat arautu dezan

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita tasa finkoko hipoteka eskuragarri bat arautu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko, eta eskatzen du mozioaren jarraipena egin dadila Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean:

Zioen azalpena

Proposamen honen xedea da amaiera ematea bankuek hipoteka-arriskuaren kudeaketa familien gain uztearen jokabide ez-zilegiari. Arriskua besterentze hori posible da hipoteka-araubide kaskarrak ahalbidetzen duelako etxebizitzak erosteko kredituak merkaturatzean tasa aldakorreko hipotekak nagusi izatea tasa finkoko hipoteken aldean. Horrek guztiak kostu eta finantza-ezegonkortasun handiagoak dakarzkie familiei, eta eragiten du moneta-politika murriztaileek eragin kaltegarriagoa izatea espainiar familientzat aldi inflazionistetan, orain pairatu berri dugunaren gisakoetan. Ondorio negatiboak kreditu-erakundeetara ere hedatzen dira, politika horrekin izen ona galtzen baitute, eta beren berandutze-tasak areagotu baitaitezke.

Errealitate hori agerikoa da inguruabar honetan: Estatuko hipoteka-merkatuan interes-tasa aldakorreko hipotekak dira nagusi, Europako beste ekonomia handi batzuetan ez bezala. 2015era arte, hipoteka-kontratuen % 90 tasa aldakorrarekin era-

tzen ziren; zifra hori nabarmen handiagoa da Alemaniakoarekin (% 20) eta Frantziakoarekin (% 30) alderatuta, esaterako. Azken urteotan, tasa finkoko eta mistoko hipoteka-kredituen kontratazioa prota-gonismoa hartuz joan da, 2022an % 70 ingurukoa izateraino; baina, orduz geroztik, behera egin du berriz gaur egungo % 60ra arte, eta Euriborrak datozen hiletan pixkanaka behera eginen duela aurreikusten denez, ziurrenik tasa aldakorreko hipotekak izanen dira nagusi berriz ere.

Azken urteotan hipoteka berrien fluxuan tasa finkokoek gora egin badute ere, Espainiako Bankuak eta Espainiako Hipoteka Elkar-teak emandako datuek agerian utzi dute ezen, 2022ko ekainean, Europako Banku Zentrala interes-tasak igotzen hasi baino lehen, hipoteka-kredituetako guztizko saldo biziaren 626.680 milioi euroetatik (BPGren % 50), % 70 baino gehiago interes-tasa aldakor bati lotuta zegoela. Horrek egoera anomalo eta zaurgarrian uzten du Espainia moneta-politika murriztailea ekar-tzen ahal duen edozein prozesu inflazionista orokor-turen aurrean; horrelakoa izan zen, adibidez, EBZk 2022aren bigarren erditik aurrera ezarritakoa, edo horrelako bat sor liteke Ekialde Hurbileko gerra orokortuko balitz eta horrek hidrokarburoen prezioa igotzea eraginen balu.

Espainiako hipoteka-merkatuan tasa finkoko eta tasa aldakorreko hipoteken pisuen artean dagoen alde horrek, Europan gertatzen denaz bestelakoa den horrek, erakusten du, lehen esan dugun eran, erregulazio-arazo bat dagoela, eta, horren ondorioz, bankuen epe luzeko finantza-arriskuaren kudeaketa familien gain uzten dela zilegitasunik gabe. Izan ere, horrelako arriskuak kudeatzeko taxututa dauden ekonomia-erakunde-ak kreditu-erakundeak dira, eta ez familiak; baina hipoteka-araubide kaskarrak ahalbidetzen du kreditu-erakundeek azken batean familien gain uztea beren enpresa- eta sozietate-erantzukizunaren zati handi bat. Eta hori lortzen dute hipoteken merkaturatze neurrigabeko baten bidez, hori bi modutan eginez.

Lehenengo modua da bankuek nagusiki tasa aldakorreko hipotekak merkaturatzea prezio-tentsiorik edo deflaziorik gabeko aldietan; prezioak artifizialki baxuak izaten dira garai horietan, eta horrelako aldiak ugariagoak izaten dira inflazio-aldiak baino. Interes-tasa baxuek epe motzean familiengan eragiten duten "ilusio monetarioa"-z profitatzen dira kreditu-erakundeak, familiek ez

baitute izaten epe luzeko haztapena egiten duen arrisku-departamenturik, bankuetan egoten direnen modukorik.

Bigarren modua da hipoteka-produktuak aukera-multzo mugatu eta ez oso garden batera murriztea, ez baita ezaguna hipoteka-eskaintza bakoitzerako eskatutako arrisku-profila. Hori horrela, mailegu-hartzaileak ezin du aukeratu edo negoziatu; ezarrita dauden baldintza jakin batzuk onartu besterik ezin du egin, eta kreditua onesten zaion arte "pairatu" egiten dituela ere esaten ahal da; pairatu, alde batetik, prozesuaren gardentasun-faltaren ondorioz, eta, beste batetik, bahitura ordaindu ostean salerosketa-kontratua gauzatzeko premia izaten duelako familiak. Jokabide hori oportunistak da guztiz, kontuan hartuta "moneta sortzeko gaitasun"-aren emakida publikoaren pean jokatzeko dutela bankuek. Ezen banku pribatuek kreditu bat eman ahal izateko ez dute behar inork bere aurrezkiak aurrez bankuan gordailutu izatea; izan ere, sektore publikoak kreditu-sorkuntzarako ahalmena eskuordetu die, egia bada ere prozesu horretan zenbait eskakizun bete behar dituztela, kaudimenarekin, likideziarekin eta erre-serba-mailarekin lotutakoak.

Beraz, hipoteka-eskaintzekin lotutako arrisku-profilak gardentasunez adierazi beharko lirateke, eta horien interes-tasek ez lukete hain homogeneoak izan behar entitateen artean, banku bakoitzak eskakizun horien betetzeari dagokionez duen posizioaren erakusgarri. Orain kontrakoa gertatzen da: hipoteken interes-tasak oso antzekoak dira entitateen artean, eta erregulazio-eskakizunak kreditu-eskaintza doituz betetzen dira. Horren guztiaren ondorioz, bankuek hipoteka-interes bidez lortzen dituzten diru-sarreraren hazkunde ez-legitimoa gertatzen da, eta familien finantza-ezegonkortasuna areagotu egiten da.

Disfuntzionaltasun horien irtenbidea da elektrozitate-merkatuko esperientzia kopiatzea: kontsumitzaileek aukeratzen ahal dute merkatuko tarifa aldakorrak nahi dituzten ala egonkorragoak eta auresangarriagoak diren tarifa arautuak nahi dituzten. Ohiko etxebizitza erosteko tasa finkoko hipoteka arautu bat sortzeko proposamenaren xedea da etxebizitza bat eskuratzeko aukera sendoa eta gardena ematea herritarrei, ziurgabetasun ekonomikoaren eragina arinduz eta interes-tasa egonkorra eta epe luzera auresateko modukoa bermatuz, finantza-erakundeek beren mozkinak maximizatzeko duten interesetik askatua.

Hipoteka arautu horrekin batera, orobat, mailegu-hartzaileak gutxienezko arriskuko profila bete beharko luke hori lortu ahal izateko, eta profil horrek ziurtatuko luke hartzaileak baduela behar

besteko kaudimena hipoteka ordaintzeko. Bistakoaenez, hipoteka arautu horrek ez ditu mugatzen kreditu-erakundeek egin nahi dituzten gainerrako hipoteka-eskaintzak, baina erreferentzia bat finkatzen du, eta kreditu-erakundeak behartuta egonen lirateke erreferentzia hori eskaintzera ohiko etxebizitza erosteko zorpetze-eragiketa orotan. Horrez gainera, egungo hipotekadunek aukera izanen dute beren hipoteka-mailegua aurrerantzeko hipoteka arautuaz ordeztzeko.

Hipoteka arautuari lotutako arrisku-profila guztienez bi eskakizun hauekin beteko litzateke:

- ❖ Lan-harreman egonkorra.

- ❖ Hipoteka-kuotaren gehi zorreatatik interes gehieneko muga, hipotekadunaren diru-sarre-rikiko: % 40.

Araututako hipotekaren tasa finkoa 10 urterako altxor-bonuen bera izanen litzateke. Baliokidetasun hori gertatzen da, hain zuzen ere, erakunde batek hipoteka-kreditu bat ematen duenean bere gain hartzen duen arriskua nulua delako, berme bikoitza baitu: (1) ematen den bermearen balioak % 20an gaintitzen du hipoteka-kredituaren zenbatekoa; eta (2) hipoteka-bermea pertsonala da Espainian; hau da, hipotekadunak bere errenta eta ondare guztiarekin erantzuten dio zorraren ordainketari, eta ez hipotekatutako etxebizitzaren balioarekin soilik. Ez dago ordainean ematerik, muturreko zaurgarritasuneko kasuetan izan ezik.

10 urterako bonuen ordainketa nabarmen handiagoa izan zen tasa aldakorrek hipoteka berrietan euroaren krisialdian ordaindutako interesa baino, garai hartan EBZk –bere aginpidea gaintuturik– zor publikoaren arrisku-primak herrialde kideei doitze-politikak ezartzeko erabili zituelarik. Badirudi oso zaila dela egoera hori errepikatzea. 2024tik aurrera, aldiz, moneta-politikaren joera-aldaketarekin, bonua hipoteka aldakorrek 2022ko lehen hiru-hilekora arte izandako interesaren azpitik kokatu da modu jarraituan; une horretan, pandemiari aurre egiteko zor publikoa areagotzearen ondorioz, haren kostuak tasa aldakorrek hipoteken kostua gaintu zuen. Alabaina, bonuaren ordainketa bat etorri da hipotekenarekin 2024tik aurrera.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du diseinatu eta onetsi ditzan behar diren araugintzazko neurriak ohiko etxebizitza erosteko tasa finkoko hipoteka arautu bat sortu ahal izateko. Kreditu-erakunde guztiak egonen lirateke hori eskaintzera behartuta, interes-tasetan gertatzen diren gorabeherak familiengan duten

eragina arintze aldera. Hipoteka horrek honako ezaugarri hauek izanen lituzke:

- Maileguaren xedea: ohiko etxebizitza erostea.
- Interes-tasak: 10 urterako altxor-bonuen jaulkipen-tasaren baliokidea, UTBa gutxienez % 1 izanik.
- Gehieneko epea: 360 hilabete (30 urte).
- Amortizazio-sistema: frantziarra edo alemaniarra.
- Hipoteka-maileguari lotutako zerbitzuak, gehienez: hipoteka-kuotak kobratzen diren kon-tuan helbideratzea nomina.

- Irekiera-komisioak edo aurrez kitatzeagatiko komisioak: komisiorik gabe.

- Kredituaren gehieneko muga, etxebizitzaren balioarekiko: % 80.

- Hipoteka arautuari lotutako arrisku-profila, lan-harreman egonkorrekin lotutakoa, eta hipoteka-kuotaren gehi zorregatik gainerako interesen gehieneko muga hipotekadunaren diru-sarrerekiko: % 40.

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-24/MOC-00141. Mozioa, talde parlamentarioek konpromisoa har dezaten arrazakeriaren aurkako eta giza eskubideetan oinarritutako politika publiko bat aldezteko

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, talde parlamentarioek konpromisoa har dezaten arrazakeriaren aurkako eta giza eskubideetan oinarritutako politika publiko bat aldezteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, zeinaren jarraipena Lehendakaritza eta Berdintasuneko Bartzordean egin dadin eskatzen baitu, Osoko Bilkuran eztabaidatua eta bozkatua izateko:

Zioen azalpena

II. Mundu Gerran gizateriak egin nahiz pairaturiko txikizioaren ondoren, nazioartean korrante humanista bat sortu zen, giza eskubideen adierazpenarekin loratu zena 1948an, bai eta, 1976an, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunarekin eta Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunarekin.

Bai adierazpena bai geroko bi itun lotesleak inspiratzen dituen humanismoak halako hitzartze moral baten balioa izan zuen, munduko korrante ideologiko nagusiak izan ziren eta izaten segitzen dutenen artekoa: sozialdemokratak, demokristauak, liberalak eta ezkertiarak (bazter utzirik II. Mundu Gerran bentzutuak izandako faxistak eta nazionalsozialistak).

Era berean, balio izan zuen jada aipaturiko korrante ideologikoekin lotura handia zeukaten bloke geopolitiko desberdinen ikusmoldeak bat etorrarazteko: ekialdeko bloke sozialista, zeinak azpimarra jartzen baitzuen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaletan; mendebaldeko bloke kapitalista, enfasia eskubide zibiletan ipintzen zuena; eta deskolonizazio-prozesuan zeuden herrialdeak, batez ere Afrika eta Asiakoak, zeinek herrien eskubideak erreibindikatzen baitzituzten.

Horrela, bada, Giza Eskubideen Adierazpena eta horren ondorengo garapena oinarri moral komun bilakatuak ditugu ikuspegi ideologikotik nahiz geografikotik, eta horrek erreferentzia den humanismo-ildo bat bermatzen du edonon eta edonorentzat, xedetzat harturik gu gizateria gisa XX. mendeko izu-

garrikeriak egitera eraman gintuzten jito moralak ezintzea.

Badirudi adostasun hori gaur den egunean auzitan dagoela, Europan ez ezik mundu osoan ere. Eta batez ere Europan, Espainian eta Nafarroan, auzitan egote hori gure gizartean sustraitzen ari den eta gure erkidegoan dauden zilegizko zaputz eta ezinegonez baliatzen ari den arrazakeria eta xenofobia baten ondorioa dugu.

Horregatik aurkezten dugu gaurkoan mozio hau, xede duena marra argi bat marraztea, humanismozko adostasuna eta horrek atzean daukan zoru moral partekatua osoki eta bainarik gabe aldeztu dugunon eta horrekin ados ez daudenen artekoa. Asmoa ez da adostasun hori defendatzen dugunok geure burua zoriontzen aritzea, ez eta adostasunetik kanpora lerratzen direnei erantzuki egitea ere –are gure arteko arrakala erraldoia agerian uzteko beste ezertarako ez balitz ere–, baizik eta aipatu adostasuna berrestea, eta bertatik desbideratzeko tentaldian egon litezkeen horiek hartaraztea irmo euts diezaio ten, adierazpenaren beraren aitzinsolasaren aipuari heldurik, bai eta giza familiaren kide guztien berezko duintasunarekiko eta eskubide berdina eta bestere nezinekiko konpromisoari ere.

Eta aipatu marra markatzeko, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Mozio hau aldeztu dugun talde parlamentariook adierazten dugu:

– Giza eskubideen ezagutzarik ezak eta gutxiespenak gizateriaren kontzientziarentzat laidogarriak diren izugarrikeriazko egintzak sortu dituztela, eta gizakiaren jomugarik goren gisa aldarrikatu dela halako mundu bat iritea non gizakiek, izuarengandik eta txirotasunarengandik askaturik, adierazpen-askatasunaz eta sinesmen-askatasunaz gozatuko baitute.

– Gizaki guztiak aske eta duintasun nahiz eskubideetan berdina izanik direla jaiotzen, eta, baiki, adimenez nahiz kontzientziak jantzirik egonik, betebeharrak elkarren arteko senidetasunez jokatzeko.

– Gizaki orori dagozkiola Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aldarrikatutako eskubide eta askatasun guztiak, inolako bereizketarik egin gabe arraza, larru-kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politika nahiz beste edozein alorretako iritzi, sorteri edo gizarte-jatorri, posizio ekonomiko, jaiotza edo beste inolako gorabeherarengatik.

– Arrazaren arabera bereizketan oinarrituriko gorentasun-doktrina oro zientifikoki faltsua, moralki gaitzesgarria eta sozialki bidegabe eta arriskutsua dela, eta teoriarik nahiz praktikan ezerk ez duela biderik ematen arrazaren arabera diskriminazioa inon ere justifikatzeko.

– Pertsona orok eskubidea duela askatasunez zirkulatzeko, Estatu baten lurraldean bere egoitza aukeratzeko, edozein herrialdetatik ateratzeko, baita beretik ere, eta bere herrialdera itzultzeko.

– Pertsona orok pertsekuzio-kasuan eskubidea duela asiloa bilatzeko eta horretaz edozein herrialdetan gozatzeko.

– Pertsona orok duela eskubidea bizi-maila egokia izateko, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongizatea bermatuko diena, eta batez ere elikadura, jantziak, etxebizitza, medikusorospena eta premiazko gizarte-zerbitzuak; eta baita aseguruia izateko eskubidea ere, langabezia, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzarora edo bizibidea bere borondatez bestela galtzearen beste kasuren bat gertatzen denean.

– Pertsona orok daukala hezkuntzarako eskubidea. Hezkuntzak doakoa izan behar du, gutxienik ere oinarritzko eta funtsezko heziketari dagokionez. Oinarritzko heziketa nahitaezkoa izanen da. Teknika eta lanbide-heziketa ororentzako izan behar du. Goi-mailako ikasketetarako sarbidea berdina izanen da ororentzat, eta norbere merezimenduen arabera.

– Hezkuntzak helburu bezala izanen du giza nortasunaren garapen erabatekoa eta giza eskubideekiko nahiz oinarritzko askatasunekiko begirunearen areagotzea; nazio guztien eta talde etniko edo erlijioso guztien arteko ulermena, tolerantzia eta adiskidetasuna faboratuko ditu, eta Nazio Batuek bakeari euts dakion egiten dituzten jardueren garapena sustatuko du.

2. Mozio hau aldeztu dugun talde parlamentariook konpromisoa hartzen dugu gure udalerrietan eta gure erkidegoan arrazismoaren aurkako politika publiko bat defendatzeko, erabaki honen lehen puntuan adierazitako printzipioei jarraituz.

3. Mozio hau aldeztu dugun talde parlamentariook konpromisoa hartzen dugu gizartearengana eta gure harreman politikoen baitako diskurtso politiko publikoaren arrazismoaren aurkakoa izan dadin, erabaki honen lehen puntuan adierazitako printzipioei jarraituz.

4. Mozio hau aldeztu dugun talde parlamentariook konpromisoa hartzen dugu lanean jarduteko halako moldez non Nafarroa harrera-lurralde solidario eta justiziazkoa izanen baita, eta edozein pertsonaren giza eskubideen defentsan garantista, zein ere diren kasuko pertsonaren jatorria eta hura Espainiako lurraldean sartzearen inguruabarrak.

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00349. Galdera, SAE sindikatuak C eta D mailetako lanbide karreraren inguruan dituen eskakizunei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, SAE sindikatuak C eta D mailetako lanbide karreraren inguruan dituen eskakizunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

SAE sindikatuaren ustez, ez da betetzen ari C eta D mailetarako lanbide-karrera garatzeari buruzko negoziazioetan ezarritakoa. Osasuneko kontseilariak zer balorazio egiten du sindikatuak hori dela-eta egiten dituen erreibindikazioei buruz?

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/POR-00350. Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean Nafarroan EITB hartzeko sinatutako hitzarmenari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean Nafarroan EITB hartzeko sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Olo Hualde andreak ahoz erantzun dezan hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran:

Orain dela gutxi berriro zen foru erkidegoan EITB hartu ahal izate aldera Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako hitzarmena.

Senatuan egindako eztabaidan, PPK eta UPNk berriz erakutsi zuten euren euskarafobia, hitzarmen horren aurka azaldu baitziren.

Hori dela-eta, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari galdetzen diogu ea zer balorazio egiten duen bi gobernuek sinatutako hitzarmenari buruz, zeinak, besteak beste, hizkuntza eztabaida alderdikoitik at normalizatzea bilatzen baitu.

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/PES-00438. Galdera, 2023ko diruzaintza-gerakinaren xedeari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, 2023ko diruzaintza-gerakinaren xedeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024ko irailaren 17an, Kontabilitate Orokorren eta Aurrekontuetakoaren Zerbitzuak Nafarroako Parlamentuari jakinarazi zion zer aldaketa gertatu den diruzaintzako gerakinaren zenbateko osoan, ordaintzeke dauden betebeharren kopurua aldatzen zuen akatsa detektatu ondotik, kopuru hori 100.921.245,46 € igota.

Gastu orokorretarako 2023ko diruzaintzako gerakina 196.462.996,20 €-koa da.

Hori dela-eta, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer aurrekontu-aldaketarako bideratu ditu gastu orokorretarako 2023ko diruzaintza-gerakineko 196.462.996,20 € horiek?

Iruñean, 2024ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/PES-00439. Galdera, Mendebaldeko Pirinioan bi hartz eme berririo sartzea dela-eta Nafarroako Gobernuak 2018an proposatutako neurriei buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Mendebaldeko Pirinioan bi hartz eme berririo sartzea dela-eta Nafarroako Gobernuak 2018an proposatutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2018ko azaroaren 27an, dokumentu batean proposatzen ziren Nafarroako Gobernuak hartu beharreko neurriak, Frantziako Gobernuak Mendebaldeko Pirinioan bi hartz eme berririo sartu dituela-eta.

Hori horrela, honakoa jakin nahi dugu:

– Dokumentu horretan proposatutako neurriak bete al dira?

– Ezarritako neurrien bidez lortutako emaitzak baloratu al dira?

– Dokumentu horretan jasotzen diren neurriak Erronkaribarko Batzorde Nagusiak berririo ere eskatu dituen berberak edo antzekoak al dira?

Iruñean, 2024ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-24/PES-00440. Galdera, bizi-euskarri aurreratuko anbulantzietako mediku eta erizainek arriskugarritasun-osagarria ez jasotzeko arrazoiei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, bizi-euskarri aurreratuko anbulantzietako mediku eta erizainek arriskugarritasun-osagarria ez jasotzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen en María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Bizi-euskarri aurreratuko anbulantzietako mediku eta erizainek ez dute arriskugarritasun-osagarria jasotzen, eta Suhiltzaileen Kidegokoek, ordea, bai, nahiz eta dauzkaten arriskuak berberak diren. Zergatik?

Iruñean, 2024ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-24/PES-00441. Galdera, Osasun Departamentuak urriaren 18an Cintruénigo eta Fitero arratsaldeko eta gaueko guardiako medikurik gabe uzteko arrazoiei buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Osasun Departamentuak urriaren 18an Cintruénigo eta Fitero arratsaldeko eta gaueko guardiako medikurik gabe uzteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1. Departamentuak zergatik kendu zuen guardiako mediku bat urriaren 18ko arratsaldean eta gauean Cintruénigon eta Fiteron?

2. Egoera hori berriz gertatzea aurreikusten al du departamentuak?

Iruñean, 2024ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

11-24/PES-00442. Galdera, SCRAPei baimena emateari buruzkoa**ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, SCRAPei baimena emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Ontzietan eta ontzietako hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren arabera, ekoizlearen erantzukizun zabaldua ontzi guztiei aplikatu behar zaie 2025eko urtarrilaren 1etik aitzina. Tresna ekonomiko hori jada aplikatu

izan zaionez zenbait ontziri (etxekoei eta fitosanitarioei), errege dekretu horrek ezarri zuen, hirugarren xedapen iragankorrean hain zuzen ere, zer epetan aurkeztu behar diren baimen-eskariak (edo kasuko komunikazioak, banakako modalitatearen kasuan), lehendik dauden sistemak (2023-06-30) eta sistema berriak (2023-12-31) bereizita.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dut:

1. Ontzi-ekoizleek eraturako SCRAP-erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboren batek eskatu al dio baimena Nafarroako Foru Komunitateari?

2. Zer SCRAP-erantzukizun zabalduaren sistema kolektibo baimendu d(it)u Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak?

3. Zertan da Ecoembes SCRAParen baimena? Gaur ba al du baimenik?

4. Berritu al da edo hitzarmen berririk egin al da etxeko Ecoembes SCRAParekin?

5. Hitzarmen berri bat sinatze aldera Ecoembesekin izaten ari diren negoziazioetan kontuan hartzen ari al dira ontzien bilketaren arloko esumenak duten toki-entitateek egindako ekarpenak?

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00443. Galdera, gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua jasotzen denetik eginiko urratsei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua jasotzen denetik eginiko urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiola:

– 2023aren amaiera aldean, gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua jaso zuen Nafarroako Gobernuak. Zer urrats egin du Gobernuak harrezkero?

– Gertuko edukien agregatzaile bat edo gisako ekimenen batik abiaraziko al du Nafarroako Gobernuak? Hala baldin bada, zein izanen litzateke horren xedea eta zer epetan izanen litzateke hori?

Iruñean, 2024ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00444. Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora bideratutako pazienteei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora bideratutako pazienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2023ko martxoan, Osasun Departamentuak aurrekontu-partida bat sortu zuen, "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" izenekoa, xede zeukana zenbait gasturi aurre egitea, hala nola pazienteak lehen kontsulta baterako edo ebakuntza baterako zentro pribatuera igortzearekin lotutakoei. Itxaron-zerrenden arintze hutserako igorriak izan diren 1.900 pertsona pasatxoetatik, dokumentuak dio traumatologia, kardiologia, oftalmologia, otorrinolaringologia eta errehabilitazioa direla sistema publikoan espezialistarekiko lehen kontsultarako edo ebakuntza baterako itxaroten ari diren pertsona gehien dauzkaten arloak.

Igorritako bost pertsonatik bi oftalmologiako pazienteak ziren; eta hirutik bat, otorrinolaringologiakoa. Alabaina, sorturiko gastuaren portzentaje handiena kardiologiari dagokio (% 31,74), nahiz eta espezialitate horretara igorritako pazienteek guztizko kopuruaren % 7,9 besterik egiten ez duten. "Oftalmologiako gastua guztizko kopuruaren % 40,50 izan da, eta otorrinolaringologiakoa, % 22,52", dio Osasunbidearen oroitidazkiak.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

– Traumatologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, lehenbiziko kontsulta baterako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Kardiologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, lehenbiziko kontsulta baterako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Oftalmologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, lehenbiziko kontsulta baterako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Otorrinolaringologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, lehenbiziko kontsulta baterako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Errehabilitazioko espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, lehenbiziko kontsulta baterako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Traumatologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, aurrerantzeko kontsultetarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Kardiologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, aurrerantzeko kontsultetarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Oftalmologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, aurrerantzeko kontsultetarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Otorrinolaringologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, aurrerantzeko kontsultetarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Errehabilitazioko espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, aurrerantzeko kontsultetarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Traumatologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, ebakuntzarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Kardiologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, ebakuntzarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Oftalmologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, ebakuntzarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Otorrinolaringologiako espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, ebakuntzarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

– Errehabilitazioko espezialitatetik, 2023an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, ebakuntzarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-24/PES-00445. Galdera, Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileekiko hitzarmenei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileekiko hitzarmenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Enpresaburuen elkarteekin eta sindikatuekin elkarrizketa sozialaren mahaian akordioa itxi eta gero, Gizarte Segurantzaren Ministerioa bultzatzen ari da Gizarte Segurantzarekin lankidetzan

aritzen diren mutualitateek eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzu publikoek lankidetzahitzarmenak sinatzea.

Halere, 2017az geroztik, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzen diren mutualitateek proba diagnostikoak eta tratamenduak aurreratzin ahal dizkiete kontingentzia arruntengatik bajan dauden soldatapeko langileei. Horretarako bakarrik behar da osasun-zerbitzu publikoko langile batek eskatzea proba edo tratamendua eta langilearen baimena izatea. 7 urte joan dira jada neurri hori abian jarri zenetik.

Hori dela-eta, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

– Adierazitako neurri horiek zer eragin izan dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren itxaron-zerrendak murrizteko eta kontingentzia arruntengatik aldi baterako ezintasuneko prozesuen iraupena murrizteko?

– Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ba al du asmorik lankidetzahitzarmenak egiteko Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzen diren mutualitateekin? Hala baldin bada, zer mutualitateekin eginen ditu eta noiz hasiko lirake hitzarmenok?

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-24/PES-00446. Galdera, gripearen aurkako txertoen stock faltari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, gripearen aurkako txertoen stock faltari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer dela-eta geratu dira Nafarroako osasuntzentroak gripearen aurkako txertoaren stockik gabe?

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00447. Galdera, Lantzeko meategiko ikerketa-aurreikuspeni buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, Lantzeko meategiko ikerketa-aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Orain dela gutxi jakin genuenez, "Ikae" edo "Igae" gisa identifikatutako idazkun paleohispaniko bat aurkitu dute Lantzeko meategian; zehazki, Aierdi VIII meategian.

Nafarroako Gobernuak berak argitaratutako ohar batean honako hau esaten zen: "aurkikuntzaren garrantzia eta arkeologia-multzoaren zaurgarritasuna ikusita, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Aierdi VIII meategia ixtea erabaki du, halako moduan non meategia soilik egonen baita irekita ikerketarekin lotutako erabileretarako".

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Zer aurreikuspen darabil gogoan Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak Lantzeko meategiaren kontserbazioari eta ikerketari dagokienez?

– Egingen al da ikerketa edo jarduketa gehigarriak Aierdi VIII meategian eta idazkun horretan? Hala bada, zeintzuk?

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/ACOP-00002. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, Kolpe militarren, gerraren eta diktaduraren biktima guztiak oroitu eta omentzeko Eguna dela-eta

2024ko urriaren 28an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Espainiako milaka gizon eta emakume omentzea –3.500 pertsonatik gora erailda Nafarroan bakarrik, milaka erbesteratu eta errepresaliatu–, beren bizitza eta askatasuna demokraziaren eta askatasunen aldeko borrokarekin konprometitu zutenak, zeinak elkarbizitzan eta giza eskubideetako errespetuan oinarritutako gizarte ororen zutabe diren. Gaur printzipio horiek berresten ditugu, gaur egun bizi dugun erregimen demokratiko, bizikidetzazko eta aniztasunekora iritsi ahal izateko haiek egin zuten ekarpenaren oroimenez eta aitortzaz.

2. Aitortza egiten diegu berdintasuna, ekitatea, askatasuna eta justizia balioak aldezteagatik kalte fisiko, moral edo psikologikoa, ondare-kalteak edo bere oinarritzko eskubideen funtsezko narriadura banakakoa edo kolektiboa jasan zituzten pertsona orori, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa diren egiteen edo ez-egiteen ondorioz jasan ere, 1936ko uztailaren 18ko Estatu kolpetik hasi eta ondorengo gerran eta diktadura frankistan 1978ko Espainiako Konstituzioa indarrean sartu arte doan aldi.

3. Beharrezkoak diren egintzak gauzatzea kolpe militarren, gerraren eta diktadura frankistaren biktimen memoria zaindu eta gordetzeko egiaren ezagutzaren bidez, biktimen eskubideen aldetik, justiziaren ezarpenaren eta errepazioaren sustapenaren bidez eta botere publikoaren memoria-betebeharra ezarriz, indarkeria politiko edo totalitarismo forma ororen errepikapena saiheste aldera.

4. Nafarroako Memoriaren Institutuak antolatzen duen Memoria duten eskolak programaren lana bultzatu eta laguntzea, hezkuntza-proiektu zeharkakoa baita, belaunaldi berriei zuzendua, hezkuntzaren munduaren eta memoriaren alorreko politika publikoen arteko topagune izan nahi duena, bereziki memoria-guneak, hilotzak lurpetik ateratzea eta frankismoaren biktimen giza eskubideen urraketa-prozesuen ikerketa.

5. Erabaki hau irakurtzea heldu den urriaren 31ko Osoko Bilkuraren hasieran, Kolpe militarren, gerraren eta diktaduraren biktima guztiak oroitu eta omentzeko Eguna dela-eta.

6. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

